

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Administrazio Xedapenak

Zerga Premiatasuneko Araugintza Dekretuak

OGASUN, FINANTZAETA AURREKONTU SAILA

8434

5/2010 ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, abenduaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Tabako Lanen gaineko Zergari dagokionez Zerga Bereziak arautu zituen otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua aldatzen ditu.

13/2010 Errege Lege Dekretua, abenduaren 3koa, enplegua sortzea eta inbertsioa sustatzeko zerga eta lan arloko jarduketari eta jarduketa liberalizatzailei buruzkoa, onartu eta argitaratu izanak berekin ekarri du Tabako Lanen gaineko Zergaren tasetan aldaketak egin behar izatea.

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bitartez onartutako Ekonomia Itunaren 33. Batartikuluaren arabera, zerga bereziak itundutako zergak dira, eta Estatuak une orotan ezarritako arau substantibo eta formal berberei jarraituko diete.

Era berean, aipatutako errege lege dekretuak Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan aldaketa bat ekarri du, sozietate eragiketen modalitateari dagokionean. Zergaren modalitate horrek araudi erkideari jarraituko dio, Ekonomia Itunaren 30. artikulua aintzat hartuta.

Hortaz, arestian adierazitakoa oinarritzat hartuta, aipatutako aldaketak Arabako Lurralde Historikoko zerga sisteman sartu behar dira.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta alde zuzenetik Diputatuen Kontseiluan gaur egindako bilkuran eztabaidatuta, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak–, 8. artikuluan, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak –Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak– Arabako Foru Aldundiari emandako eskumenen arabera, premia arazoengatik hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa. Zerga bereziei buruzko arautegia aldatzea.

Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 60. artikulua honela geratu da (aldaketak 2010eko abenduaren 3tik aurrera sortuko ditu ondorioak):

“60. artikulua.- Zerga tasak.

Zerga ondoren aipatzen den tarifaren arabera exijituko da:

1. epigrafea. Zigarro eta zigarrotxoak: ehuneko 15,8.

2. epigrafea. Zigarretak: 5. epigrafea aplikatzekoa den kasuetan izan ezik, zigarretak tasa hauek aplikatuta zergapetuko dira aldi berean:

a) Tasa proportzionala: ehuneko 57.

b) Tasa berezia: 12,7 euro 1.000 zigarretako.

3. epigrafea. Biltzeko tabako xehea: 6. epigrafea aplikatzekoa den kasuetan izan ezik, biltzeko tabako xehea tasa hauek aplikatuta zergapetuko da aldi berean:

a) Tasa proportzionala: ehuneko 41,5.

b) Tasa berezia: 8 euro kiloko.

4. epigrafea. Tabakoaren inguruko gainerako lanak: ehuneko 28,4.

Disposiciones Administrativas

Decretos Normativos de Urgencia Fiscal

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

8434

DECRETO NORMATIVO DE URGENCIA FISCAL 5/2010, del Consejo de Diputados de 30 de diciembre, que modifica el Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero, que reguló los Impuestos Especiales en lo referente al Impuesto sobre las Labores del Tabaco y la Norma Foral 11/2003, de 31 de marzo, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

La aprobación y publicación del Real Decreto Ley 13/2010, de 3 de diciembre de actuaciones en el ámbito fiscal, laboral y liberalizadoras para fomentar la inversión y la creación de empleo ha supuesto la introducción de modificaciones en los tipos impositivos del Impuesto Especial sobre las Labores del Tabaco.

El Concierto Económico, aprobado por Ley 12/2002, de 23 de mayo, en el apartado Uno de su artículo 33, establece que los Impuestos Especiales tienen el carácter de tributos concertados que se regirán por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado.

Así mismo, el citado Real Decreto Ley introduce una modificación en el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, en su modalidad de operaciones societarias. Esta modalidad del impuesto se rige por la normativa común en virtud del artículo 30 del Concierto Económico.

En base a lo expuesto procede, por tanto, incorporar dichas modificaciones al sistema tributario del Territorio Histórico de Álava.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy, en uso de las atribuciones que concede a la Diputación Foral el artículo 8 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava y la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, -de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava-, por razones de urgencia,

DISPONGO

Primero. Modificación de la normativa reguladora de los Impuestos Especiales.

Con efectos desde el 3 de diciembre de 2010, el artículo 60 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero, de los Impuestos Especiales, queda redactado como sigue:

“Artículo 60. Tipos impositivos.

El Impuesto se exigirá conforme a la siguiente tarifa:

Epígrafe 1. Cigarros y cigarrillos: 15,8 por ciento.

Epígrafe 2. Cigarrillos: excepto en los casos en que resulte aplicable el epígrafe 5, los cigarrillos estarán gravados simultáneamente a los siguientes tipos impositivos:

a) Tipo proporcional: 57 por ciento.

b) Tipo específico: 12,7 euros por cada 1.000 cigarrillos.

Epígrafe 3. Picadura para liar: excepto en los casos en que resulte aplicable el epígrafe 6, la picadura para liar estará gravada simultáneamente a los siguientes tipos impositivos:

a) Tipo proporcional: 41,5 por ciento.

b) Tipo específico: 8 euros por kilogramo.

Epígrafe 4. Las demás labores del tabaco: 28,4 por ciento.

5. epigrafea. Zigarretak 116,9 euroko tasa bakarrarekin zergapetuko dira 1.000 zigarretako, bigarren epigrafeko tasak aplikatuta ateratzen diren kuotak epigrafe honetan ezarritako tasa bakarraren zenbatekoa baino txikiagoa denean.

6. epigrafea. Biltzeko tabako xehea kiloko 75 euroko tasa bakarrarekin zergapetuko da, hirugarren epigrafeko tasak aplikatuta ateratzen diren kuotak epigrafe honetan ezarritako tasa bakarraren zenbatekoa baino txikiagoa denean.

Bigarrena. Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua aldatzea.

Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren 69. artikuluko 1. paragrafoaren B idatz zatiaren 25. zenbakia honela geratu da (aldaketak 2010eko abenduaren 3tik aurrera sortuko ditu ondorioak):

“25. Sozietateak eratzea, kapitala gehitzea, kapitala gehitzen ez duten bazkideen ekarpenak eta sozietatearen zuzendaritza egoitza edo sozietatearen egoitza Arabako Lurralde Historikora aldatzea, Europar Batasuneko estatu batean inoiz egon ez badira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean sartzea.

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean xedapen orokor hau, eta haren testuan ezarritakoaren arabera izango ditu ondorioak.

Bigarrena. Gaitzea.

Arabako Foru Aldundiari baimena eman zaio, xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Hirugarrena. Biltzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Biltzar Nagusiei aurkeztuko zaie, beretsi edo baliogabetu dezaten, indarrean dagoen arautegian ezarritakoari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 30a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JOSE LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

8430

64/2010 FORU DEKRETUA, abenduaren 30eko Diputatu Kontseiluarena, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioentzat eta behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrenda aldatzen duena.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua onartu zuen apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 74. artikulua xedatu bezala: “Herri Administrazioek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa-tresnak erabili ahal izateko dute beren antolamendua”.

Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak honela dio zioen adierazpenean: “Legeak sistemaren egituraketak oinarri duen muintzat jartzen ditu lanpostu zerrendak, administrazio karrerako funtsezko elementu, lansari sistemaren ardatzik garrantzizkoen eta, batez ere, administrazio egiturak arrazoibideratzeko eragile bilakatuz. Lanpostuak eratzeke erabili behar diren funtsezko irizpideak eta prozedura bideak zehazten ditu legeak, baina lanpostu zerrendek erakundearen beharren benetako adierazpide izan behar dute beti eta horretan datza horien indarra. Ondorioz, lanpostu zerrenda horiek izaera dinamikoa dute eta horrek Administrazio Publikoaren helburuak betetzeak eskatzen duen etengabeko egokitze prozesuari jarraitu beharra dakar, beharrak aldatuz baitoaz”.

Epigrafe 5. Los cigarrillos estarán gravados al tipo único de 116,9 euros por cada 1.000 cigarrillos cuando la suma de las cuotas que resultarían de la aplicación de los tipos del epígrafe 2 sea inferior a la cuantía del tipo único establecido en este epígrafe.

Epigrafe 6. La picadura para liar estará gravada al tipo único de 75 euros por kilogramo cuando la suma de las cuotas que resultarían de la aplicación de los tipos del epígrafe 3 sea inferior a la cuantía del tipo único establecido en este epígrafe.”

Segundo. Modificación de Norma Foral 11/2003, de 31 de marzo, del Impuesto sobre Transmisiones y Actos Jurídicos documentados.

Con efectos desde el 3 de diciembre de 2010, el número 25, de la letra B, del apartado Uno, del artículo 69 de la Norma Foral 11/2003, de 31 de marzo, del Impuesto sobre Transmisiones y Actos Jurídicos Documentados, queda redactado como sigue:

“25. La constitución de sociedades, el aumento de capital, las aportaciones que efectúen los socios que no supongan aumento de capital y el traslado al Territorio Histórico de Álava de la sede de dirección efectiva o del domicilio social de una sociedad cuando ni una ni otro estuviesen previamente situados en un Estado miembro de la Unión Europea.”

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Entrada en vigor.

La presente disposición general entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA y surtirá efectos según lo dispuesto en su articulado.

Segunda. Habilitación.

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente disposición general.

Tercera. Remisión a Juntas Generales.

Este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se someterá a las Juntas Generales de Álava, para su convalidación o revocación, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

Vitoria-Gasteiz, a 30 de diciembre de 2010.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

Decretos Forales del Consejo de Diputados

DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN FORAL

8430

DECRETO FORAL 64/2010, del Consejo de Diputados de 30 de diciembre, que modifica la Relación de Puestos de Trabajo reservados a funcionarios/as de carrera y personal eventual de la Administración General de esta Diputación Foral.

La Ley 7/2007, de 12 de abril, por la que se aprobó el Estatuto Básico del Empleado Público señala en su artículo 74 que “las Administraciones Públicas estructurarán su organización a través de las Relaciones de Puestos de Trabajo u otros instrumentos organizativos similares”.

La Ley 6/89 de la Función Pública Vasca señala en su Exposición de Motivos que “la ley erige a las relaciones de puestos de trabajo como la columna vertebral sobre la que descansa la estructuración del sistema, convirtiéndolas en el elemento esencial de la carrera administrativa, núcleo fundamental del sistema retributivo y, sobre todo, factor de racionalización de las estructuras administrativas. La ley marca los principios básicos y cauces procedimentales a que debe atenerse su formación, pero las relaciones de puestos de trabajo, y en ello radica su virtualidad, deben ser en todo momento la expresión real de las necesidades de la organización, y que, por tanto, tienen una naturaleza dinámica, que obliga a un proceso constante de adecuación a las cambiantes necesidades que demanda el cumplimiento de los fines de la Administración Pública”.